

UR ETA ARGIETAKO OFIZIALAK

2022-09-28

LEHENENGO ARIKETA

B EREDUA

1. ADMINISTRAZIOAREN EBAZTEKO BETEBEHARRA 39/2015 LEGEAREN 21 ETA 22. ARTIKULUEK ERREGULATZEN DUTE; HORIEN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?

- a) Prozedurei dagozkien arauetan ezarrita ez badago, sei hilabete izango da gehieneko epea
- b) Ebazpen espresua jakinarazteko gehieneko epea, dagokion prozedura arautzen duen arauan zehaztutakoa izango da. Epe hori ezin da sei hilabete baino gehiago izan, non eta lege mailako arau batek ez duen handiagoa ezartzen edo Europar Batasuneko zuzenbidean ez den hala aurreikusten.
- c) Preskripzioa, eskubideari uko egitea, prozedura iraungitzea edo eskaeran atzera egitea gertatzen denean, eta orobat prozeduraren xedea gerora desagertzen denean, Administrazioa ez dago behartuta 39/2015 Legearen 21. artikulua lehen paragrafoak ezartzen dion ebazpen espresua ematera.
- d) Edozein dela ere kasua, ezin izango da eten prozedura ebatzi eta ebazpena jakinarazteko legez ezarri den gehieneko epea.?

2. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN LEGEAREN 24.3 ARTIKULUAREN ARABERA:

- a) Administrazio-isiltasunez baiesten den kasuetan, epea igaro ondorengo ebazpen espresua emateko orduan, Administrazioarentzat ez da loteslea isiltasunaren esanahia.
- b) Administrazio-isiltasunez ezesten den kasuetan, egintzaren ondorengo ebazpen espresua hura berresteko baino ezin da izan.
- c) Administrazio-isiltasunez ezesten den kasuetan, epea igaro ondorengo ebazpen espresua emateko orduan, Administrazioarentzat ez da loteslea isiltasunaren esanahia.
- d) Administrazio-isiltasun ezbaietsitako zein ezetsitako kasuetan, Administrazioak ezin du ebazpen espresua eman hura emateko eta jakinarazteko gehieneko epea igarota badago.

3. NOLA SAILKATZEN DITU ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAK LAN KONTRATUKO LANGILEAK:

- a) Finkoak, mugagabeak eta aldi batekoak.
- b) Finkoak eta behin-behinekoak.
- c) Finkoa eta aldi batekoak.
- d) Mugagabeak eta aldi batekoak

4. ENPLEGU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN ARABERA, ESKUBIDE INDIBIDUAL KOLEKTIBOKI GAUZATUTZAT JOTZEN DA:

- a) Askatasun sindikala.
- b) Bateratzea erraztuko duten neurriak hartzea.
- c) Lanbidean aurrera egiteko eskubidea.
- d) Gizarte Segurantzaren laguntzak

5. LANGILE PUBLIKOEN EGINDAKO HUTSEGITEEN ZEHAPENETARAKO PRESKRIPZIO EPEAREN HASIERA HAU DA:

- a) Zehapen ebazpena irmoa izatea.
- b) Hutsegitea egitea.
- c) Hutsegitearen berri izatea.
- d) Zigor espedienteei ekiteko erabakia.

6. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOAN BOTERE PUBLIKOEN JARDUNA ZUZENDU BEHAR DUTEN PRINTZPIOAK. TRATU-BERDINTASUNAREN PRINTZPIOARI DAGOKIONEZ, ORO HAR, NOLA HARTUKO LITZATEKE EGOERA BAT NON ITXURAZ NEUTROA DEN PRAKTIKA BATEK DESABANTAILA ZEHATZ BAT EKARRIKO BAITIEA SEXU JAKIN BATEKO PERTSONEI BESTE SEXUKOEN ALDEAN?

- a) Zuzeneko diskriminaziotzat hartuko litzateke.
- b) Zeharkako diskriminaziotzat hartuko litzateke.
- c) Ez da diskriminaziotzat jotzen.
- d) Diskriminazio positibotzat hartuko litzateke.

7. 39/2015 LEGEAREN 14. ARTIKULUAK ERREGULATZEN DU ADMINISTRAZIO PUBLIKOEKIKO HARREMANAK ELEKTRONIKOKI IZATEKO ESKUBIDEA ETA BETEBEHARRA. ARTIKULU HORREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?

- a) Pertsona fisikoek noiznahi erabaki dezakete beren eskubideak eta betebeharrak baliatzeko administrazio publikoekin komunikatzean bitarteko elektronikoak erabili edo ez, non eta ez dauden behartuak administrazio publikoekiko harremana bitarteko elektronikoen bidez izatera.
- b) Pertsona juridikoek noiznahi erabaki dezakete beren eskubideak eta betebeharrak baliatzeko administrazio publikoekin komunikatzean bitarteko elektronikoak erabili edo ez.
- c) Nortasun juridikorik gabeko entitateek noiznahi erabaki dezakete beren eskubideak eta betebeharrak baliatzeko administrazio publikoekin komunikatzean bitarteko elektronikoak erabili edo ez.
- d) Administrazio publikoetako enplegatuek noiznahi erabaki dezakete beren eskubideak eta betebeharrak baliatzeko administrazio publikoekin komunikatzean bitarteko elektronikoak erabili edo ez, non eta ez dauden behartuak administrazio publikoekiko harremana bitarteko elektronikoen bidez izatera.

8. 39/2015 LEGEAREN 16. ARTIKULUAREN ARABERA, NON AURKEZ DITZAKETE INTERESDUNEK ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ORGANOEI ZUZENTZEN DIZKIETEN DOKUMENTUAK? ADIERAZI ERANTZUN OKERRA

- a) Posta-bulegoetan.
- b) Zuzentzen zaizkion administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoan, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 2.1 artikuluan aipatzen diren subjektuetako edozeinen gainerako erregistro elektronikoetan.
- c) Espainian dauden atzerriko ordezkariak diplomatikoetan edo kontsuleetxetako bulegoetan.
- d) Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.

9. EUSKAL BOTERE PUBLIKOEK GENERO. IKUSPEGIA TXERTATU BEHAR DUTE BEREN POLITIKA ETA EKINTZA GUZTIETAN, HALAKO MODUZ NON HORIETAN GUZTIETAN:

- a) Ezberdintasunak minimizatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.
- b) Ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.
- c) Ezberdintasunak gutxitzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.
- d) Ezberdintasunak ez areagotzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.

10. 4/2005 LEGEAREN ONDOREETARAKO, PERTSONA ANITZEKO ADMINISTRAZIO-ORGANOETAN ORDEZKARITZA OREKATUTZAT JOKO DA, HAIN ZUZEN, SEXU BIEK HONAKO ORDEZKARITZA DUTENEAN, GUTXIENEZ:

- a) % 50.
- b) % 45.
- c) % 30.
- d) % 40.

11. TOKI ERAKUNDEETAKO LANGILEAK

- a) Toki-erakundeetako langile guztiak behin-behineko langileak izango dira.
- b) Toki-erakundeetako langileak dira: lan-zuzenbidepean kontratatutako langileak eta konfiantzako edo aholkularitza bereziko lanpostuak betetzen dituzten behin-behineko langileak.
- c) Toki-erakundeetako langile guztiak lan-zuzenbide epean kontratatutako langileak izango dira.
- d) Toki-erakundeetako langileak dira: karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, lan-zuzenbidepean kontratatutakoak eta konfiantzako edo aholkularitza bereziko lanpostuak betetzen dituzten behin-behineko langileak

12. ADMINISTRAZIO. PROZEDUREN SINADURAK. NOLA SINATUKO DUTE INTERESDUNEK?

- a) Beren borondatearen eta adostasunaren adierazpena autentikoa dela eta dokumentua osoa eta aldaezina dela egiaztatzeko aukera ematen duen edozein bitartekoren bidez sinatu ahal izango dute interesdunek.
- b) Dokumentazioa hartzen duen administrazioak adierazitako baliabideen bidez soilik sinatu ahal izango dute interesdunek.
- c) Interesdunak EZ daude beharturik administrazio publikoen aurrean aurkezten dituzten dokumentuak sinatzera; erantzukizunpeko adierazpen bat edo komunikazio bat aurkezteak borondate hori dutela adierazten eta egiaztatzen du.
- d) interesdunak EZ daude beharturik administrazio publikoen aurrean aurkezten dituzten dokumentuak sinatzera; erregistroan errekurtsio bat aurkeztea nahikoa da sinatzeko asmoa dutela ondorioztatzeko. Oker material bat da.

13. TOKI ERREGIMEN ALORREKO LEGERIAREN ARABERA, UDALERRIKO ELEMENTUAK DIRA:

- a) Lurraldea, biztanleria eta armatarria.
- b) Lurraldea, biztanleria eta udaletxea.
- c) Udala, alkatea, zinegotziak eta bandera.
- d) Lurraldea, biztanleria eta antolakuntza.

14. HERRI ADMINISTRAZIOETAKO PROZEDURA ADMINISTRATIBO ERKIDEAREN LEGEA KONTUAN HARTUZ, HERRI ADMINISTRAZIOETARA JOANDA, FORMATU EZ ELEKTRONIKOAN, ALEGIA AURKEZTEN DIREN DOKUMENTUAK:

- a) Dagokion espediente administratiboan sartuko dira eta berehala horien kopia konpultsatua egingo da interesatuari entregatzeko.
- b) Interesatuari jatorrizko formatuan itzuliko zaizkio, aurrez horien kopia konpultsatua eginda, eta hori, dagokion espediente administratiboan sartuko da.
- c) Aurkeztu direneko erregistro lanetako bulegoan digitalizatu egin beharko dira espediente administratibo elektronikoa sartzeko, eta jatorrizkoak interesatuari itzuliko zaizkio.
- d) Ez dira onartuko eta interesatuari itzuliko zaizkio, izan ere dokumentuak ezin dira inola ere bulegora joanda aurkeztu.

15. AHAL HAUETAKO BAT EZ DAGOKIE UDALERRIEI; ZEIN?

- a) Erregelamenduak egiteko ahala.
- b) Zergetako eta finantzetako ahala.
- c) Egintzak nahitaez betearazteko ahala.
- d) Legegintzako ahala.

16. NORI DAGOKIO ALKATEORDEAK IZENDATZEA?

- a) Udalbatzari.
- b) Tokiko gobernu-batzarrari.
- c) Alkateari.
- d) Gobernu-ordezkaritari.

17. HAUETAKO ZEIN EZ DA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 4/2005 LEGEAREN XEDEA?

- a) Rol tradizionalen garapena indartzea sexuaren arabera.
- b) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan botere publikoen jarduna zuzendu behar duten printzipio orokorrak ezartzea.
- c) Zenbait neurri arautzea, bizitzaren arlo guztietan emakumeek eta gizonek aukera eta tratu berdinak izan ditzaten sustatu eta bermatzeko.
- d) Emakumeen autonomia sustatzeko eta posizio sozial, ekonomiko eta politikoa indartzeko neurriak arautzea.

18. TOKI-ARAUDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN APIRILAREN 2KO 7/1985 LEGEAREN ARABERA, ZEIN DIRA ESTATUAREN LURRALDE-ANTOLAKETAREN OINARRIZKO ENTITATEAK?

- a) Probintziak.
- b) Autonomia-erkidegoak.
- c) Udallerriak.
- d) Eskualdeak.

19. EKINTZA POSITIBOA PRINTZIPIO OROKOR BAT DA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOAN EUSKAL BOTERE PUBLIKOEN JARDUKETAK GIDATU ETA BIDERATZEKO APLIKATU BEHARREKOA:

- a) Bai.
- b) Ez.
- c) Bakarrik egoera jakin batzuetan.
- d) Bakar-bakarrik araugintza-arloan.

20. 39/2015 LEGEAREN 15. ARTIKULUAK ERREGULATZEN DU ZER HIZKUNTZA ERABILI BEHAR DEN PROZEDURETAN. ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA:

- a) Estatuaren Administrazio Orokorren prozedurak gaztelaniaz izapidetuko dira. Estatuaren Administrazio Orokorrek autonomia-erkidego batean dituen organoetara jotzean, interesdunak gaztelania erabili beharko du nahitaez.
- b) Autonomia-erkidegoetako administrazioek izapidetutako prozeduretan, kasuan kasuko autonomia-legerian ezarritakoari lotuko zaio hizkuntzaren erabilera.
- c) Administrazio publiko instrukzio-egileak gaztelaniara itzuli beharko ditu autonomia-erkidegoko lurraldetik harago ondorioak izan behar dituzten dokumentu edo espedienteak edo haien atalak eta espresuki hala eskatzen duten interesdunei zuzendutako dokumentuak. Gaztelaniaz besteko hizkuntza koofizial bera duen autonomia-erkidego batean izan behar badituzte ondorioak, ez da beharrezko izango itzultzea.
- d) Toki-entitateetako administrazioek izapidetutako prozeduretan, dagokion legeria autonomikoan ezarritakoari lotuko zaio hizkuntzaren erabilera.

21. ZEIN DIRA LEGEZKO IZENDAPENAREN BIDEZ ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATI IRAUNKORKI ETA ADMINISTRAZIO ZUZENBIDEAK ARAUTUTAKO ESTATUTU-HARREMAN BATEN BIDEZ LOTUTA DAUDEN ENPLEGATU PUBLIKOAK?

- a) Zuzendaritzako langile profesionalak.
- b) Karrerako funtzionarioak.
- c) Bitarteko funtzionarioak.
- d) Behin-behineko langileak.

22. HERRI ADMINISTRAZIOETAKO PROZEDURA ADMINISTRATIBO ERKIDEAREN LEGEAK EPEAK ZENBATZEARI BURUZ ESATEN DUENA KONTUAN HARTUZ, EPEAK EGUNETAN ADIERAZTEN DIRENEAN:

- a) Horiek egun baliodunak direla ulertuko da, zenbaketatik kanpo utziz larunbatak, igandeak eta jaiegun deklaratuak.
- b) Horiek egun baliodunak direla ulertuko da, zenbaketatik kanpo utziz igandeak eta jaiegun deklaratuak.
- c) Horiek egun naturalak direla ulertuko da, zenbaketatik kanpo utziz larunbatak, eta igandeak.
- d) Horiek egun naturalak direla ulertuko da, zenbaketatik kanpo utziz larunbatak eta igandeak, eta abuztuko hilabete osoa ere bai.

23. ENPLEGU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN LEGEKO TESTU BATEGINAK ESATEN DUENA KONTUAN HARTUZ, ENPLEGATU PUBLIKO GUZTIEK ESKUBIDEA DUTE:

- a) Bere lanpostutik mugituak ez izateko.
- b) 60 urterekin jubilatzeke, beti ere zerbitzu eraginkorren 30 urte egiaztatzen badituzte.
- c) Herri Administrazioaren defentsa juridikoa eta babesa jasotzeko, berak egindako edozein ekintzaren ondorioz edozein jurisdikzio-ordenaren aurrean prozedurak jarraitzen badira.
- d) Aurreko bat ere ez da zuzena.

24. ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN LEGEKO TESTU BATEGINAK EZARRITAKO JOKABIDE- PRINTZIPIOAK KONTUAN HARTUZ, ENPLEGATU PUBLIKOENK:

- a) Baliabide eta ondasun publikoak arinkeriak administratuko dituzte.
- b) Bere buruzagien instrukzioak eta aginduak beteko dituzte, ordenamendu juridikoa nabarmen haustea dakartenean izan ezik.
- c) Laneko segurtasun eta osasun alorreko arauak beteko dituzte, gehiegizkotzat jotzen direnean kasurik ez egiteko kalterik gabe.
- d) Herritarrei arreta ematen saiatuko dira haiek eskatzen duten hizkuntzan, beti ere behar beste menderatzen badute.

25. ORGANO HAUETAKO BAT EZ DA UDALETAKO BEHARREZKO ORGANO BAT: ZEIN?

- a) Udalbatza.
- b) Alkateordea.
- c) Kontuen batzorde berezia.
- d) Herritarren partaidetzako batzordea.

26. ZEIN EZ DA HUTSEGITE OSO LARRIA?

- a) Sekretu ofizialak zaintzeko orduan, arduragabekeriak jokatzea.
- b) Greba-egoeretan ezinbesteko diren zerbitzuak betetzeko eginbeharra ez betetzea.
- c) Lanpostuari lotutako funtsezko eginkizunak edo langileak esleituta dituen eginkizunak modu nabarmenean ez betetzea.
- d) Administrazio-prozedura batean esku-hartzea, esku ez hartzeko kausetariko bat egonik tartean.

27. PROZEDURA BATEAN, ZEIN DIRA INTERESDUNAK?

- a) Eskubideen titular gisara prozedura bultzatzen dutenak edo interes lausoak dituztenak.
- b) Interes bakun bat izan eta administrazioari legea betetzea exijitzen diotenak.
- c) Interes ekonomiko eta sozialak ordezkatzeko dituzten elkarteak, lege edo erregelamendu batek aitortutako moduan.
- d) Ebazpenak uki ditzakeen interes legitimoak dituztenak, prozeduran pertsonatzen badira.

28. ZEIN LANGILE MOTAK BURUTZEN DITU, IZENDAPEN BATI ESKER ETA BEHIN BETIKO IZAERARIK GABE KONFIANTZAZKOTZAT EDO AHOLKULARITZA BEREZITZAT BERARIAZ KALIFIKATUTAKO EGINKIZUNAK?

- a) Bitarteko funtzionarioek
- b) Behin-behineko langileek
- c) Zuzendaritzako langileek
- d) Karrerako funtzionarioek

29. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAN AURREIKUSITAKO ONDORIOETAKO ONDORIOETARAKO ETA LEGE HORREN 3. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, NORK IZANGO DU, BESTEAK BESTE., ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN JARDUTEKO GAITASUNA.

- a) Arau penalen arabera jarduteko gaitasuna duten pertsona fisikoek.
- b) Administrazioko arauen arabera jarduteko gaitasuna duten pertsona fisikoek
- c) Arau zibilen arabera jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko edo juridikoek
- d) Nazioarteko merkataritza-arauen arabera jarduteko gaitasuna duten pertsona juridikoek

30. 39/2015 LEGEA. ESKAERA, IDAZKI EDO KOMUNIKAZIO BATEAN INTERESDUN BAT BAINO GEHIAGO BADAGO, NOREKIN EGINGO DA EGIN BEHARREKO JARDUNA.

- a) Interesdun horiek espresuki adierazitako ordezkari edo interesdunarekin, eta, ezer adierazten ez bada, berriz, idazkian agertzen de lehenengoarekin
- b) Administrazioak ausaz aukeratzen duen edozein interesdunarekin
- c) Idazkian agertzen den azken interesdunarekin
- d) Interesdun bakoitzarekin

ERRESERBAKO GALDERAK

31. ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN 95. ARTIKULUAREN ARABERA, NOLA SAILKATZEN DIRA ENPLEGATU PUBLIKOEN EGINDAKO ARAU-HAUSTEAK?

- a) Oso astunak, astunak eta irregulartasunak.
- b) Oso astunak eta astunak.
- c) Astunak eta arinak.
- d) Oso astunak, astunak eta arinak.

32. ZEIN KASUTAN DA NAHITAEZKOA SINADURA ELEKTRONIKOA ERABILTZEA ADMINISTRAZIO-PROZEDURAK IZAPIDETZEKO?

- a) Alegazioak aurkezteko eta dokumentuak entregatzeko, ebazpena emateko ezinbestekoak izan ala ez.
- b) Administrazioari eskabideak egiteko eta erantzukizunpeko adierazpenak edo aurretiazko komunikazioak aurkezteko.
- c) Administrazioari jakinarazpenak jasotzeko.
- d) Interesdunaren izenean jardungo duen ordezkari bat izendatzeko.

33. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERTINTASUNERAKO 4/2005 LEGEAREN ARABERA, HAUETAKO ZEIN EZ DA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERTINTASUNAREN ARLOAN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BOTERE PUBLIKOEN JARDUNA ZUZENTZEN DUEN PRINTZIPIO OROKORRETAKO BAT?

- a) Ekintza positiboa.
- b) Solidaritatea generoaren ikuspegitik.
- c) Sexuaren araberako rola eta estereotipoak desagerraraztea.
- d) Ordezkaritza orekatua.

34. 4/2005 LEGEAREN 3.6 ARTIKULUAREN ARABERA, SEXUAREN ARABERAKO ROL ETA ESTEREOTIPOAK DESAGERRARAZ DAITEZEN SUSTATZEA:

- a) Euskal botere publikoen eginbeharra da.
- b) Politika publikoen xedea da.
- c) Administrazio publikoei egiten zaien gomendio bat da.
- d) Erantzun guztiak okerrak dira

35. HAUETATIK, NORK DU ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN AURREAN JARDUTEKO GAITASUNA?

- a) Pertsona juridikoek eta adin nagusiko pertsona fisikoek.
- b) Pertsona juridikoek, adin nagusiko pertsona fisikoek eta adingabeek, ordenamendu juridikoaren arabera jarduera jakin batzuetarako.
- c) Pertsona juridikoek eta administrazioak bere aurrean jarduteko behar bezala gaitutako pertsona fisikoek.
- d) Edozein prozedura motak ukitzen dituen taldeek.